

BITARTEKOTASUNEN ESKAINTZA – FEM – 2023ko MAIATZA - 2021eko KONTRATAZIO-ZERRENDAK

Bitartekotasun batzuk eskainiko dira hurrengo egunetan, eta, horretarako, posta elektronikoa erabiliko da **2021eko kontratazio-zerrenda luzeetan** dauden eta **lanerako prest** dauden pertsonekin harremanetan jartzeko. Kategoria hauetan eskainiko dira lanpostuak:

- **Gaixotasun Infekziosoen Arloko Fak. Esp. Medikoa**
- **Geriatriako Fak. Esp. Medikoa**
- **Laneko Medikuntzako Fak. Esp. Medikoa**
- **Prebentzio Medikuntzako eta Osasun Publikoko Fak. Esp. Medikoa**
- **Psikiatriako Fak. Esp. Medikoa**
- **Haur Psikiatriako Fak. Esp. Medikoa**
- **Immunologiako Fak. Esp. Mediko-Teknikoa**
- **Ospitale Farmaziako Fak. Esp. Teknikoa**
- **Psikologia Klinikoko Fak. Esp. Teknikoa Biologiako Fak. Teknikoa**

Prozedura horrek Erabaki honi jarraitzen dio: *2021eko uztailaren 21eko Erabakia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluarena, Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeko dena.*

Eskainitako izendapenak

Erantsitako formularioan zerrendatzen diren iraupen luzeko izendapenak eskaintzen dira (zerrenda luzeak).

Nori eskainiko zaion

Izendapen luzeen kontratazioko zerrendan dauden eta lanerako prest dauden pertsona guztiei eskainiko zaie.

Era berean, 2021eko kontratazio-zerrendetan izena emateko eskaera egin duten baina oraindik zerrenda horietan **sartuta ez** dauden pertsoneri ere bidaliko zaie eskaintza hau, prestakuntza espezializatua 2023. urtea baino lehen amaitu dutenei zein hurrengo egunetan amaituko dutenei. Bitartekotasunak esleitzeko ordena *Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeari buruzko Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren seigarren xedapen gehigarrian* araututakoaren arabera izango da.

Adierazitako ezaugarriak betetzen dituzten pertsonak 2023ko apirilaren 17ra arte (egun hori barne) egindako eskabideak hartuko dira kontuan.

Horiek guztiek, interesatzen zaizkien izendapenak aukeratu ahal izango dituzte, eskainitako lanpostuetarako **nahi duten aurre-ordena** adieraziz.

Esleipenentarako ordena *Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 20. artikuluan* ezarritakoa da, *Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeari buruzkoa.*

Eskaintza hori jaso arren, egiturazko plantillako lanpostu hutsetan egiturazko behin-behineko langileak finkatzeko prozeduratik eratorritako izendapena baduzu, ezin izango zaizu eskainitako lanpostuetako bat ere esleitu, bitarteko langile bazarelako.

Zuk aukeratutako izendapen bat esleitzen badizute eta ez baduzu onartzen, ezarri beharreko zigorra aplikatuko zaizu, 2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Destino-aukeraketa

- Erantsitako formularioan, eskainitako izendapen guztiak daude jasota.
- Hautagai gisa izena emanda duzun zerbitzu-erakundeetan **bakarrik** aukeratu ahal izango dituzu destinoak.
- **Era berean, hautagai guztiak aukeratu ahal izango dituzte hizkuntza-eskakizuna duten eta derrigortasun-data iraungita duten lanpostuak, nahiz eta eskatutako hizkuntza-eskakizuna ez izan.** Kasu horietan, esleitzeko lehentasuna "Destinoa esleitzea" atalean ezarritakoa izango da.
- **Bete nahi dituzun destinoak soilik aukeratu behar dituzu (ezin izango diozu uko egin esleitutako destinoari).** Hautagaiak ez ditu nahitaez aukeratu behar izena emanda duen zerbitzu-erakundeko edo zerbitzu-erakundeetako destino guztiak, aurrerago azaltzen den ofiziozko esleipenari kalterik egin gabe.

Gaitasunaren xede diren destinoak BAKARRIK:

Dagokion Prebentzioko Oinarrizko Unitateak emandako ziurtagiri bat indarrean duten pertsonak, "**hainbat ohar kontutan hartuta, gai direla**" jasotzen duena, gaitasuna duten destinoak soilik aukeratu beharko dituzte.

Egun eta ordu horretatik aurrera ez da eskabiderik onartuko.

Kontuan izan formularioaren egituran edozein aldaketa eginez gero eskaera **baliogabetu** egingo dela.

DESTINOA ESLEITZEA

1.A. Hasierako esleipena

Izendapenak zerrenda luzeen puntuazio-ordenaren arabera esleituko dira automatikoki. Dagokion zerrendan lanerako prest egonda ere deialdian ateratzen den lanpostua betetzeko eskabidea aurkezten ez duenari ez zaio zigorra ezarriko, jarraian arautzen den ofiziozko esleipenari kalterik egin gabe.

1.B. Ofiziozko esleipena

Izangaiek hautatu ez dituzten edo inori esleitu ez zaizkion izendapen-eskaintzak **ofizioz esleituko dira**, hauek kontuan izanda: zerrendako kideak hautatutako zerbitzu-erakundea, lanpostuen argitalpen-ordena, zerrendan duen lehentasun-ordena eta iraupen luzeko aldi baterako izendapenak hartzeko prest dagoen. Izangai batek ofiziozko esleipenari uko egiten badio eta ez badu justifikatzeko arrazoirik alegatzen, **2021eko uztailaren 21eko Erabakiaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion zigorra ezarriko zaio.**

Ofiziozko esleipenak lehenengo eskaintzatik hasiko dira, izendapenak argitaratu ziren ordenaren arabera; beraz, hutsik geratu den lehen izendapena ofizioz esleituko zaio zerbitzu-erakundeko izendapen luzeen zerrendan lanerako prest dagoen lehenengo izangaiari. Zerrenda hori agortuko balitz, Barrutiko izendapen luzeen zerrendan lanerako prest dagoen lehen pertsonari esleituko litzaioke, eta horrela hurrenez hurren, izendapen guztiak esleitu arte.

Esleitutako destinoa ez onartzeak edo hari uko egiteak, justifikatzeko arrazoirik alegatzen ez bada, izendapen luzeen zerrendatik kanpo geratzea ekarriko du kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzeari buruzko 2021eko uztailaren 21eko Erabakian adierazitako aldietarako.

2. Euskara-eskakizuna duten lanpostuak esleitzea

Derrigortasun-data iraungita duen euskara-eskakizuna daukan lanpostu bat aukeratu baduzu eskatutako hizkuntza-eskakizuna izan gabe, esleipenerako lehentasuna honako hau izango da:

1. – Eskatutako hizkuntza-eskakizuna (2. HE) duten pertsonak;
2. – Eskatutako hizkuntza-eskakizunaren aurrekoa (1. HE) duten pertsonak;
3. – Hizkuntza-eskakizunik egiaztatuta ez duten pertsonak.

Izangaiei posta elektronikoz jakinaraziko zaie esleitutako destinoa, eta dagokien zerbitzu-erakundeko Langileen Zuzendaritza haiekin jarriko da harremanetan lanean hasteko eguna ezartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 8a